

GRADU AMAIERAKO LANERAKO

ESTILO GIDALIBURUA

(GEOLOGIA)

MEMORIA ONDOKO ESTILO ARAUEN ARABERAKOA IZANGO DA

1. DOKUMENTUA:

Azalaren eta gainontzeko orrien tamaina DIN A4koa (210 x 297 mm-koa) izango da. DIN A3 erabili ahal izango da mapak eta irudi grafikoak adierazteko, memorian behar bezala txertatuta agertzen badira.

Dokumentuan honako marjinak izango ditu: Goialdean: 2,5 cm / Behealdean: 2,5 cm / Ezkerraldean: 3 cm / Eskuinaldean: 2,5 cm.

Inprimatzea orriaren bi aldeetatik egingo da.

2. LETRA MOTA:

Testuaren gorputza: Arial Narrow 11 tamainakoa, justifikatua, lehen esaldiko koskatzea 0,5 cm-koa, aurreko tarte 0, ondorengo tarte 6 tamainakoa, lerroarte 1,5.

Taula-gainak eta irudi-oinak: Arial Narrow 9, letra etzana, erdigunera lerrokatuta, koskatzerik ez, aurreko tarte 3 eta ondorengo tarte 6, lerroarte 1,5. Irudiak eta taulak testuarekin lerrokatuta agertuko dira.

Bibliografia: Arial Narrow 11, justifikatua, lehen lerro frantseseko koskatzea 0,5 cm, aurreko tarte 0 eta ondorengo 6, lerroarte 1.

3. GOIBURU ETA OIN-ORRIAK:

Goiburuak ezberdinak izango dira orrialde bakoiti eta bikoitietan. Biak hasiko dira orrialdearen goikaldetik 1,25 cm-tara.

Orrialde bikoitietako goiburuak: Arial Narrow Cursiva 10, letra larriz, ezkerrean lerrokatuta adieraziko da GAL-HILABETEA-URTEA, koskatzerik gabe eta ½ puntuko ertzarekin.

Orrialde bakoitietako goiburuak: Arial Narrow Cursiva 10, letra larriz, eskubian lerrokatuta IZENA ETA ABIZENA, koskatzerik ez eta ½ puntuko ertzarekin.

Oin-orria: Orriaren beheko aldetik 1,25cm-tara hasiko da, zenbakia Arial Narrow Cursiva 10ekin adieraziko da, erdigunera lerrokatuta eta goikaldean ½ puntuko ertzarekin.

4. ATALAK:

Lehen mailakoak: Zenbakidun zerrenda; Letra lodiz; Letra larriz; Koskatzerik gabe; Goiko tarte 12 puntu eta behekoa 6 puntu (adib. **1. SARRERA**).

Bigarren mailakoak: Zenbakidun zerrenda; Letra lodiz; Letra xehez; Koskatzea 0,5; Goiko tarte 12 puntu eta behekoa 6 puntu (adib. **1.1. Teknika Analitikoak**).

Hirugarren mailakoak: Zenbakidun zerrenda; Letra xehez; Koskatzea 0,5; Goiko tarte 12 puntu eta behekoa 6 puntu (adib. 1.1.1. Litologia).

5. INDIZEA:

Orrialde bakar bat gehituko da azalaren ondoren eta bertan adieraziko dira lehen mailako, bigarren mailako eta hirugarren mailako gaiak. Erabili beharreko letra mota testuaren gorputzean erabilitakoaren berdina izango da.

6. IRUDIAK:

Zenbaki arabiarrek erabiliko dira (adib. 1. Irud. edota 1. Irudia).

Maketazioak ahalbidetzen duen neurrian, aipamena egin den lekutik gertu agertu beharko dira.

Irudiaren tamainak 16cm baino txikiagoa izan beharko du zabaleran (idazteko "kaxaren" barruan). Mapak eta memoria ulertzeko beharrezkoak diren erreprodukzio grafikoen kasuan, honela gehituko dira 1) idazteko kaxaren tamaina maximoan etzanda (247 x 155 mm) edo 2) DIN A3 tamainan.

Irudi-oina irudiaren azpiko aldean agertuko da, irudiarekiko beharrezko tarte utziz.

7. TAULAK:

Zenbaki erromatarrek erabiliko dira (adib. IV. Taula).

Maketazioak ahalbidetzen duen neurrian, aipamena egin den lekutik gertu agertu beharko dira.

Taularen tamainak 16cm baino txikiagoa izan beharko du zabaleran (idazteko "kaxaren" barruan). Mapen eta memoria ulertzeko beharrezkoak diren erreprodukzio grafikoen kasuan, honela egin ahalko da 1) idazteko kaxaren tamaina maximoan etzanda (247 x 155 mm) edo 2) DIN A3 tamainan.

Taula-gaina taularen goiko aldean agertuko da, taularekiko beharrezko tarte utziz.

8. BIBLIOGRAFIA:

Bibliografia testuan zehar aipatutako lanek bakarrik osatuko dute. Azterketa zehatza eskatzen da aipu bibliografikoak eta haien bilketaren artean, izan ere, aipatutako bibliografia oro agertu beharko da memoriaren amaierako zerrendan eta, alderantziz, bibliografia atalean zerrendatuako bibliografia oro izan beharko da gutxienez behin aipatua testuan zehar.

Testuan: Testuaren barruan egindako bidaltze-marka eta aipuetan egilearen lehen abizena (izenaren lehen letra jarriko da nahasgarria suerta daitekeenetan) eta edizio-urtea jarri beharko dira komaz banatuta (adib. Guibaud, 1992). Egile beraren urte bereko aipuak daudenetan, orduan aipu bibliografikoei letra xehe bat gehituko zaie (adib. 1972a, 2006b, etab.). Bi egile direnean, bien abizenak aipatuko dira "eta" partikulaz lotuta (adib. Berger eta Wefer, 2009). Hiru egile edo gehiago badira, aipua lehen sinatzailearen abizenarekin

egingo da eta *et al.* formula gehituko zaio. Erreferentzia bibliografiko gisa balioko dute soilik argitaratutako lanek edota argitaratzeko behin betiko onartuta dauden lanek. Liburuak, kapituluak, aldizkariak, artikulak eta tesi-memoriak izan daitezke. Kongresuen laburpenak, argitaratu gabeko lanak edota web orriak erabili behar izatekotan, testuan aipatuko dira baina ez dira bibliografian gehituko.

Bibliografiaren zerrendan, erreferentziak egilaren arabera alfabetikoki jarriko dira honako informazioa txertatuz: Egilea(k), urtea, lanaren izenburua, aldizkariaren izenburua, alea, orrialdeak eta doi (digital object identifier). *Aldizkariaren izenburua* letra etzanarekin idatzi beharko da. Ez dira onartuko aldizkariaren laburdurak. Aldizkaria beharrez, liburu bat bada, izenburuaren atzetik (letra etzanean joango da), argitaletxea, argitalpen-hiria, orrialdeak eta ISBN jarri beharko dira. Honako adibide hauek jarraituko dira...

Aldizkariak:

Guibaud, G., 1992. Subaqueous sediment gravity flow deposits: practical criteria for their field description and classification. *Sedimentology*, 39: 423-454, doi: 10.1111/j.1365-3091.1992.tb02126.x

Aitken, A.R.A., Quentin de Gromard, R., Joly, A., Howard, H.M. eta Smithies, R.H., 2019. Thermal, rheological and kinematic conditions for channelized lower crustal flow in a threshold example. *Tectonophysics*, 753: 63-78, doi: 10.1016/j.tecto.2019.01.002.

Liburuak:

Lyell, C., 1990. *Principles of Geology*. The University of Chicago Press, Londres, 510 or., ISBN: 0-226-49794-1

Liburuen kapituluak:

Berger, W.H. eta Wefer, G., 2009. Marine Biogenic Sediments. In: *Encyclopedia of Paleoclimatology and Ancient Environments*, V. Gornitz (Ed.): 525-533. Springer, Berlin, doi: 10.1007/978-1-4020-4411-3_131.

Tesiak:

Karakatsanis, S., 2009. Investigation of the post-volcanic phenomenon in areas of South Aegean Volcanic Arc and their influence to the environment: the case of Ikaria Island. Doktore Tesiaren Memoria, Atenasko Unibertsitatea. Atenas.

Mapak eta memoria geologikoak:

Barrera Morate, J.L., Farias Arquer, P., González Lodeiro, F., Marquínez García, J., Martín Parra, L.M., Martínez Catalán, J.R., Del Olmo Sanz, A. eta De Pablo Macía, J.G., 1989. *Mapa geológico y Memoria de la Hoja nº 17/27 (Ourense/Verín)*. Mapa Geológico de España E. 1:200.000 ITGE, 284 or.

Galán Arias, J., Fernández Rodríguez-Arango, R., Aldaya Valverde, F., Ruiz Arias, F. eta González Lodeiro, F., 1981. *Mapa geológico de la Hoja nº 151 (Puebla de Caramiñal)*. Mapa Geológico de España E. 1:50.000. Bigarren saila (MAGNA), Lehen edizioa. IGME.

Galán Arias, J., Fernández Rodríguez-Arango, R., Ruiz Arias, F. eta González Lodeiro, F., 1981. *Memoria de la Hoja nº 151 (Puebla de Caramiñal)*. Mapa Geológico de España E. 1:50.000 (MAGNA), Bigarren saila, Lehen edizioa. IGME, 22 or.

I. ERANSKINA


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ZIENTZIA
ETA TEKNOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE CIENCIA
Y TECNOLOGÍA



Gradu Amaierako Lana
XXX Gradua

Lanaren Izenburua

Egilea:
XXX
Zuzendariak:
XXX / XXX